

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

8437

**67/2010 FORU DEKRETUA**, abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan egiten diren zerbitzu eta jardueren 2011ko prezio publikoei buruzko arautegia onartzen da.

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2010eko abenduaren 27an zerbitzu eta jardueren 2011ko prezio publikoei buruzko arautegia onartzea proposatu zuen.

Tasa eta prezio publikoei buruzko azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauak (ALHAO, 147 zenbakia, 1989ko abenduaren 22koa) 26.1 artikuluan ezarri zuenez, Diputatuen Kontseiluaren eskumena da erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuengatik eskatu behar zaien prezioa finkatzea eta aldatzea, eta horien artean sartzen dira Gazteriaren Foru Erakundeak eskaintzen dituenak.

Horregatik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

## XEDATU DUT

Lehenengoa.- Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan egiten diren zerbitzu eta jardueren 2011ko prezio publikoei buruzko arautegia onartzea, honen eranskinean jasotzen den bezala.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, 2011ko urtarilaren batetik aurrera legezko ondorioak sor ditzan.

Gasteiz, 2010eko abenduaren 30a.- Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, MALENTXO ARRUABARRENA JULIAN.

## I. eranskina

**GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEAREN ATERPETXEETAN EGITEN DIREN ZERBITZU ETA JARDUEREN 2011KO PREZIO PUBLIKOEI BURUZKO ARAUTEGIA.**

## ZIOEN AZALPENEA

27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, autonomia erkidego osoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanak arautu zituen. Lege horrek zenbait eskumen aitortzen zizkien aldundiei gazteriaren arloan. Horren haritik, Ekainaren 20ko 22/1988 Foru Arauaren bidez Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoa eratu zen. Foru erakunde horrek Arabako Lurralde Historikoan gazteria erabat prestatzea du helburu.

Aipatutako helburuak lortze aldera, Gazteriaren Foru Erakundeak lau aterpetxe ditu, eta horiek gazteen esku jartzen ditu, elkartu, bildu eta zenbait jarduera gara ditzaten.

Era berean eta ekainaren 8ko Diputatu Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuak 15. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera, Gazteriaren Foru Erakundeak bere helburuak lortzeko bere esku izango ditu, beste baliabideen artean, erakundearen mendeko zentroetan emandako zerbitzuengatik erabiltzaileek ordaintzen dituzten kuota eta tasak.

Gazteriaren Foru Erakundeak eta haren instalazioen erabiltzaileek dituzten harreman ekonomikoak abenduaren 12ko Diputatuen Kontseiluak arautu zituen 120/1995 Foru Dekretuaren bidez.

Dekretu horren bigarren xedapen gehigarriarekin bat etorritik, foru dekretu bidez prezio publikoak urtero eguneratu eta arautzen dira.

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTES

8437

**DECRETO FORAL 67/2010**, del Consejo de Diputados de 30 de diciembre, que aprueba la normativa reguladora de los precios públicos por los servicios y actividades prestados en los Albergues del Instituto Foral de la Juventud para 2011.

El Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud con fecha 27 de diciembre de 2010 propone la aprobación de la normativa de Precios Públicos por prestación de Servicios y Actividades para 2011.

Resultando que la Norma Foral número 64 de 20 de noviembre de 1989 (BOTHA, número 147, de 22 de diciembre de 1989), sobre tasas y precios públicos, establece en su artículo 26.1 como competencia del Consejo de Diputados la fijación o modificación de la cuantía de los precios que hayan de exigirse a los usuarios por la prestación de servicios, entre los que se incluye al Instituto Foral de la Juventud.

En su virtud, a propuesta de la Diputada de Euskera, Cultura y Deportes y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

## DISPONGO

Primero.- Aprobar la Normativa de Precios Públicos por prestación de Servicios y Actividades prestados en los albergues del Instituto Foral de la Juventud para el año 2011, que figura en documento anexo.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA para que surta efectos legales a partir del uno de enero del 2011.

Vitoria-Gasteiz, a 30 de diciembre de 2010.- El Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- La Diputada de Euskera, Cultura y Deportes, MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.

## Anexo I

**NORMATIVA DE PRECIOS PÚBLICOS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS Y ACTIVIDADES EN LOS ALBERGUES DEL INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD**

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Norma Foral 22/1988 de 20 de junio, constituye como Organismo Autónomo el Instituto Foral de la Juventud para la consecución de los fines que, relacionados con la formación integral de la juventud en el Territorio Histórico de Álava, corresponden a la Diputación en el marco competencial derivado de la Ley 27/1983 de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos.

Como medio para conseguir dichos fines, el Instituto Foral de la Juventud cuenta con cuatro albergues que pone a disposición de los y las jóvenes para facilitar encuentros, convivencias y desarrollo de actividades.

Así mismo y según lo contemplado en el artículo 15 del Decreto Foral 26/2010, del Consejo de Diputados de 8 de junio, el Instituto Foral de la Juventud contará, para la consecución de sus fines, entre otros recursos, con las cuotas y tasas que satisfagan los usuarios en razón a los servicios prestados a los mismos por los centros dependientes del Instituto.

Por Decreto Foral 120/1995, del Consejo de Diputados de 12 de diciembre, fueron reguladas las relaciones económicas entre el Instituto y quienes utilizaran sus instalaciones.

Al amparo de la Disposición Adicional segunda de dicho Decreto, se han venido efectuando las actualizaciones anuales de los Precios Públicos, y su regulación normativa, por Decretos Forales.

**1. KAPITULUA****XEDEA - ZERGA GAIA****Lehenengo artikulua. Xedea.**

Arautegi honek helburu hau du: Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa den Gazteriaren Foru Erakundearen sarea osatzen duten aterpetxeen zerbitzuak erabili nahi dituzten erakunde, entitate edo partikularrek ordaindu behar dituzten prezio publikoak ezartzea.

Aterpetxeen sarean instalazio hauek daude:

- Carlos Abaitua aterpetxea. Gasteiz, Isaac Díez eskultorearen kalea, z/g.

- Espejoko Jorge Díez Elorza aterpetxea. Espejo

- Barriako aterpetxea. Narbaxa.

- Zuhatzako Irlako aterpetxea. Ullibarri-Gamboako urtegia.

**Bigarren artikulua. Zerga gaia.**

1. Erakundeak aurreko aterpetxeetan egiten dituen jarduera hauek ordaindu behar dira:

- Mantenu osoa.

- Bazkaria.

- Afaria.

- Ostatua eta gosaria.

- Maindireak alokatzea (Zuhatzako aterpetxean izan ezik)

- Zerbitzu Bereziak.

2.- Zerbitzu horiek honela erabili ahal izango dira zentro bakoitzean:

a) Erabiltzaileak, behintzat, ostatu zerbitzua eta gosaria kontratatzea.

b) Erakundeak bere jardun eremuaren barruan egiten dituen kanpaina edo eskaintza berezietan izena ematea.

c) Gazteriaren Foru Erakundearen Zuzendaritzaren iritziz ezartzen diren beste erabilera batzuk, Arabako aterpetxe sarearen helburuekin eta funtzionamenduari bat etorritz.

3.- Aurreko ataletako jarduerak eta erabilerak Gazteriaren Erakundeak bakarrik kudeatuko ditu, eta erabiltzaileek ezin izango dituzte egin edo antolatu, ez berek ezta hirugarrenek ere. Hala ere, oso justifikatuta dauden kasuetan, Gazteriaren Erakundeak baimendu dezake salbuespenak egitea.

4.- Aipatutako egoerak establezimendu bakoitzean ezarrita dagoen arautegira egokituko dira, barne funtzionamenduari dago-kionez, eta, bidezkoa bada, deialdi publikoan jasotzen dena.

Erregelamendu horren kontra arau-hauste larririk eginez gero, erabiltzaileak kanpora bota daitezke aterpetxetik, eta, horrezaz gain, erantzukizuna eska dakieke, halakorik izanez gero.

**II. KAPITULUA****ORDAINTZERA BEHARTUAK. SORTZAPENA ETA ORDAINTZEKO MODUA. ITZULKETAK****Hirugarren artikulua. Ordaintzera behartuak.**

Ondoko hauek ordaintzera behartuta daude: pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, Arabako Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeen sareko instalazio eta zerbitzuak erabiltzea eskatzen dutenak edo erakunde berak antolatutako aisialdirako jardueretan parte hartzea eskatzen dutenak.

**Laugarren artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa eta sortzapena.**

1. Instalazioak erabili eta bertan emandako zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak Foru Dekretu honen I. Eranskinean adierazten diren tarifetan ezarritakoarekin bat etorritz zehaztuko dira.

2. Foru Dekretu honetan 5 eta 6. artikuluan xedatutakoaren araber, prezio publiko hauek instalazio eta zerbitzuak erabiltzeko erreserba formaltzerakoan sortuko dira.

**CAPITULO 1****OBJETO - HECHO IMPONIBLE****Artículo primero. Objeto.**

La presente Normativa tiene por finalidad regular el Precio Público que se establece para organismos, entidades o particulares por la utilización de los servicios de los albergues que forman la red del Instituto Foral de la Juventud, organismo autónomo de la Excm. Diputación Foral de Álava.

Esta red de albergues se compone de las siguientes instalaciones:

- Albergue Carlos Abaitua, sito en Vitoria-Gasteiz, Escultor Isaac Díez s/n.

- Albergue de Espejo-Jorge Díez Elorza, sito en la localidad de Espejo.

- Albergue de Barría, sito en la localidad de Narbaja.

- Albergue de la Isla de Zuhatza, sito en el pantano de Ullibarri-Gamboa.

**Artículo segundo. Hecho imponible.**

1. Son objeto de exacción las siguientes actividades prestadas por el Instituto en los citados albergues:

- Pensión completa.

- Comida.

- Cena.

- Alojamiento y desayuno.

- Alquiler de sábanas (excepto el albergue de Zuhatza)

- Servicios Especiales.

2.- Los anteriores servicios vendrán determinados por las siguientes posibles formas de uso de los centros:

a) Contratación, como mínimo de alojamiento y desayuno por usuario.

b) Inscripción en campañas u ofertas especiales, realizadas por el Instituto de conformidad con su ámbito de actuación.

c) Otros usos que se puedan establecer a criterio de la Dirección del Instituto Foral de la Juventud, de acuerdo con los objetivos y funcionamiento de la red foral de albergues de Álava.

3.- Las actividades y las formas de uso a que se refieren los apartados anteriores serán gestionadas en exclusiva por el Instituto, no pudiendo efectuar u organizar los y las usuarias ninguna de ellas por sí mismas o por terceros, sin perjuicio de que, en casos debidamente justificados, aquél pueda autorizar excepciones a lo anterior.

4.- Las situaciones expuestas se atenderán, en su funcionamiento interno, a la reglamentación específica al respecto de cada establecimiento y, en su caso, a lo que disponga la correspondiente convocatoria pública.

En el supuesto de incumplimiento grave de dicha reglamentación, los o las usuarias podrán ser desalojadas de inmediato del albergue, sin perjuicio de la exigencia de las responsabilidades a que hubiese lugar.

**CAPITULO II****SUJETOS OBLIGADOS AL PAGO. DEVENGO Y FORMA DE PAGO. DEVOLUCIONES****Artículo tercero. Sujetos obligados al pago.**

Son sujetos obligados al pago las personas físicas y jurídicas, públicas o privadas, que soliciten el uso de instalaciones y servicios de la red de albergues del Instituto Foral de la Juventud de Álava o que soliciten ser usuarias de las actividades de ocio y tiempo libre organizadas por el mismo.

**Artículo cuarto. Cuantía del precio público y devengo.**

1. El precio público a percibir por el uso de las instalaciones y los servicios prestados en las mismas, se determinará de acuerdo con lo establecido en las tarifas que se indican en el Anexo I al presente Decreto Foral.

2. Los precios públicos se devengarán en el momento de formalizarse la reserva de uso de instalaciones y servicios, conforme a lo establecido en los artículos 5 y 6 del presente Decreto Foral.

**Bosgarren artikulua. Ordaintzeko modua.**

Aterpetxeetako zerbitzuengatik sortutako prezio publikoak modu honetan ordainduko dira.

- Aterpetxeak erabiltzeko erreserba Interneten bidez egin daiteke, ondoko prozedurari jarraituz:

- Instalazioan lekuak, zerbitzuak eta egoitza datak libre badaude, Arabako Foru Aldundiaren gazteentzako aterpetxea erabili nahi duenak ordaintzeko egin beharko du, aurrerakin gisa. Tarifa hitzartuen kasuan, egoitzaren guztizko kopuruaren ehuneko 25a eta, gainerako tarifetan, ehuneko 60a. Aurrerakin hau erreserba balioztatu eta gehienez 10 eguneko epean ordaindu behar da, sarrera dataren aurretik 15 egun baino lehenago egiten diren erreserben kasuan izan ezik. Kasu honetan erreserba balioztatu eta 2 eguneko epea egongo da.

- Aurrerakina ez bada ezarritako epearen barruan ordaintzen, erreserba deuseztatu egingo da, Gazteriaren Foru Erakundeko Zuzendaritza-Kudeatzaileak beren-beregi baimendutako salbuespeneko arrazoiengatik izan ezik.

- Sarrera dataren aurretik 2 egun baino lehenago egiten diren edo aterpetxean bertan egiten diren banakako erreserbetan ez da aurrerakinik ordaindu behar, baina sarrera egunean egoitzaren ehuneko 100a ordaindu beharko da, gehienez 3 eguneko (denbora horren ondoren egoitza kontratu berria egin beharko da).

- Zerbitzuen zenbateko osoaren kitapena, balizko kalteak eta zerbitzu bereziak barne hartuta, aterpetxean egingo da, egonaldia bukatutakoan. Ordaintzea transferentzia bidez edo kontuko abonua bidez egin daiteke aterpetxetik irten ondoren edo, bestela, aterpetxean bertan likidazioa jasotakoan.

**Seigarren artikulua. Sarrerak itzultzea eta erreserbak deuseztatzea.**

1. Lekuak erreserbatzeko alde aurretik ordaindutako zenbatekoa ondoko deuseztatze epe eta portzentajeen arabera itzuliko dira:

1.- Ehuneko 100a, erreserba aterpetxeko sarrera dataren aurretik bi hilabete lehenago deuseztatzen bada.

2.- Ehuneko 50a, erreserba aterpetxeko sarrera dataren aurretik hilabete bat lehenago deuseztatzen bada.

3.- Ez da ezer itzuliko aterpetxeko sarrera dataren aurretik hilabete baino gutxiago geratzen bada (30 egun)

4. 15 egun baino lehenago egiten diren banakako erreserben kasuan, ez da inolaz ere aurrez ikusten erreserba deuseztatzeagatik aurrerakina itzultzea.

2. Erakundeak kontratuan hitzartu baino erabiltzaile edo zerbitzu gehiago onartu ahal izango ditu. Onartuz gero, fakturazioa egindako zerbitzuen arabera egingo da.

3. Kontratutako zerbitzuetako batzuk deuseztatu nahi izanez gero, hain zuzen ere, guztien ehuneko hamabost baino gutxiago, baina erabiltzaileen kopurua aldatu gabe, eta horren berri ematen bazaio Erakundeari egonaldia hasi baino egutegiko 6 egun lehenago gutxienez, egindako zerbitzuak baino ez dira ordaindu beharko; aldiz, Erakundeari ezer jakinarazten ez bazaio, kontratatutako guztia ordaindu beharko da.

4. Kontratutako erabiltzaileen kopurua txikituz gero:

Gazteriaren Foru Erakundeak zerbitzua hasi baino egutegiko 20 egun lehenago horren berri izan badu, ez da inolako kargurik ezarriko.

Kopuru hori kontraturiko plazen ehuneko hamabost baino gutxiago jaitsi bada, eta zuzendari horren berri gutxienez sei egun lehenago eman bazaio, benetan jasotako zerbitzuengatik eta jarduerengatik ordaindu beharko da. Bestela, kontratuan ezarritako guztia ordaindu beharko da.

5. Establezimenduan agertzean, taldeko arduradunak erabiltzaileen zerrenda aurkeztuko du eta bertan nortzuk izango diren begiraleak, irakasleak edo antzekoak adieraziko du.

**Artículo quinto. Forma de pago.**

Los precios públicos devengados por la prestación de los servicios de los albergues se abonarán del modo siguiente:

- La reserva para la utilización de los albergues se realizará a través de internet, conforme al siguiente procedimiento:

- En caso de existir disponibilidad de plazas, servicios y fechas de estancia en la instalación, quienes deseen hacer uso de un albergue juvenil de la Diputación Foral de Álava deberán realizar un abono en concepto de anticipo. Este será de un 25 por ciento en el caso de la tarifa concertada o de un 60 por ciento del total de la reserva en el caso del resto de tarifas. Este anticipo deberá hacerse efectivo en un plazo máximo de 10 días tras la validación de la reserva exceptuando aquellas reservas que se realicen con menos de 15 días de antelación con respecto a la fecha de entrada. Para éstas, el plazo será de 2 días a partir de la fecha de validación de la reserva.

- Si este anticipo no se hiciera efectivo dentro del plazo marcado, la reserva quedará anulada salvo causa excepcional y que deberá ser autorizada expresamente por la Dirección-Gerencia del Instituto Foral de la Juventud.

- Las reservas individuales que se realicen con menos de 2 días de antelación a la fecha de entrada o se realicen directamente en la misma instalación no tendrán que abonar ninguna cantidad en concepto de anticipo pero sí, efectuar el pago del 100 por cien de la estancia, que no será superior a 3 días, en el momento de entrada, debiendo formalizar un nuevo contrato de estancia a partir de ese tiempo.

- La liquidación hasta el importe total de los servicios, incluido el coste de posibles daños y de servicios especiales, se realizará en el albergue al finalizar la estancia. Este pago se podrá llevar a cabo mediante transferencia o abono en cuenta, con posterioridad a abandonar el albergue, y también, en metálico, en el propio albergue, a la entrega de la liquidación.

**Artículo sexto. Devoluciones de ingresos y anulación de reservas.**

1. El importe anticipado en concepto de reserva de plazas se devolverá de acuerdo con los siguientes períodos de anulación y porcentajes:

1ª El 100 por cien siempre que la anulación se efectúe con dos meses de antelación a la fecha de entrada en el albergue juvenil

2ª El 50 por ciento, si la anulación se realice con un mes de antelación a la fecha de entrada en el albergue juvenil.

3ª La reserva no se devolverá a partir de un período inferior a un mes (30 días) anterior a la fecha de entrada en el albergue

4ª Para aquellas reservas individuales, que se realicen con menos de 15 días de antelación, no está contemplada en ningún caso la devolución del anticipo en caso de anulación de la reserva.

2. Queda a criterio del Instituto aceptar un número de personas o de servicios superior al del contrato y, de admitirlo, la facturación se hará por el número de servicios realmente prestados.

3. Si se produjesen anulaciones respecto de algunos de los servicios contratados que no suponga más del quince por ciento del total de los mismos, pero manteniendo el número de personas usuarias, y fuesen formalmente conocidas por el Instituto, al menos, 6 días naturales antes de la iniciación de aquéllos, se harán efectivos sólo los gastos directamente causados; de no mediar comunicación en este sentido, se abonará el total de lo contratado.

4. En el supuesto de reducciones respecto al número de personas usuarias:

Si las mismas fuesen conocidas por el Instituto al menos con 15 días naturales de anticipación al inicio de los servicios, no producirán cargo alguno.

Si dicha minoración fuese inferior al quince por ciento de las plazas contratadas y se comunicase a la Dirección del Albergue al menos seis días naturales antes, se facturará sólo por los servicios y actividades realmente prestados. Caso contrario se cargará la totalidad de lo contratado.

5. A su presentación en el establecimiento, la persona responsable del grupo entregará una relación nominal de componentes, con especificación de quienes sean monitores, profesores o encargados de cometidos similares.

6. Aurreko idatz zatietan aipatutako deuseztatzeak ezinbestean gertatzen badira eta Gazteriaren Foru Erakundeak hala izan dela onartzen badu, ez da ordaindu beharko preziorik eta ordaindutako kopuruak itzuliko dira. Gauza bera gertatuko da Erakundeak egonaldi bat bertan behera uzten duenean ere.

Xedapen indargabetzailea.

Honen bidez, indargabetu egiten da abenduaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 81/2009 Foru Dekretua, Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeak erabiltzeagatik eta bertako zerbitzu eta jarduerengatik eska daitezkeen prezio publikoak ezartzen dituen.

Azken Xedapenetako Lehenengoa.

Gazteria arloan eskumena duen diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatu eta betearazteko ezinbestekoak diren xedapenak emateko eta neurriak hartzeko.

Azken Xedapenetako Bigarrena.

Foru dekretu honek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du indarra.

## II. ERANSKINA

2011. urtean Arabako Gazteriaren Foru Erakundeak aterpetxeak erreserbatu eta erabiltzeagatik eta bertako zerbitzuengatik eska daitezkeen prezio publikoak.

1. 2011n hauek izango dira Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan zerbitzuak egiteagatik prezio publikoen tarifak:

### 2011KO PREZIO PUBLIKOAK

ZERBITZUAK	HITZARTUA	ARRUNTA	
	Gazteak	Gazteak	Helduak
Mantenu osoa	18,70	23,90	30,60
Bazkaria	6,70	7,20	8,75
Afaria	6,70	7,20	8,75
Ostatua eta gosaria	10,90	14,05	18,70
Maindireak alokatzea	3,00	3,00	3,00

Zerbitzu Bereziak. Instalazioak erabiltzea, hitzartutako orduetatik kanpo

Fakturazioa, kostuaren arabera: Gutxieneko fakturazioa, pertsonako 2 euro.

2. Prezio publikoak: motak.

1.- Hiru mota daude:

- Gazteentzako prezio hitzartua
- Gazteentzako prezio arrunta
- Helduentzako prezio arrunta

2.- Prezio publikoaren aplikazioa:

- Gazteentzako prezio hitzartua:

Honelako prezioak ondokoak betetzen dituzten pertsonen aplikatuko zaie, beren jarduerak eginez gero:

a) Legez eraturako elkarteetako kideak, 30 urtetik beherakoak.

b) Gazte elkarteetako begirale taldeak.

c) Ikastetxeetako ikasleak.

d) Gazte taldeak. Gehienbat 30 urtetik beherakoez osatuta daudenak jotzen dira gazte taldeak.

- Gazteentzako prezio arrunta:

Aurreko puntuan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonen aplikatuko zaie, baldin eta jardura erakunde publiko batek (udal erakunde, foru erakunde, autonomia erkidegoa...) sustatu badu. Gazteriaren Foru Erakundeak sustatzen dituzten erakundeak ez dira sartzen prezio honetan; Erakundeak berak ezarriko ditu bere jardueren prezioak.

Enpresa pribatuei ere prezio hau aplikatuko zaie.

30 urtera arteko GASeko kideei ere prezio hau aplikatuko zaie.

- Helduentzako prezio arrunta:

Gainerako erabiltzaileei helduentzako prezio arrunta kobratuko zaie.

3.- 4 urtetik beherakoek dagozkien prezioaren ehuneko 30a ordainduko dute.

4.- 12 hilabetetik beherakoek ez dute ordaindu behar ezer.

6. No se cobrará precio alguno y se devolverán las cantidades ya abonadas cuando las anulaciones previstas en los apartados anteriores, se deban a casos de fuerza mayor apreciada por el Instituto Foral de la Juventud o cuando la causa sea motivada por la suspensión de la estancia por parte del Instituto.

Disposición Derogatoria.

Queda derogado el Decreto Foral 81/2009, del Consejo de Diputados, de 22 de diciembre, por el que se fijan los precios públicos exigibles por la prestación de servicios y utilización de los albergues del Instituto Foral de la Juventud de Álava.

Disposición Final Primera.

Se faculta al Diputado o Diputada competente en materia de Juventud, para dictar las disposiciones y adoptar cuantas medidas sean necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto Foral.

Disposición Final Segunda.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día 1 de enero de 2011.

## ANEXO II

Cuantía de los precios públicos exigibles por la prestación de servicios y la reserva y utilización de diversas dependencias de los albergues del Instituto Foral de la Juventud de Álava, durante el año 2011.

1. Para 2011 las tarifas de los precios públicos por la prestación de servicios en los albergues del Instituto Foral de la Juventud serán las siguientes:

### PRECIOS PÚBLICOS 2011

SERVICIOS	CONCERTADA	NORMAL	
	Jóvenes	Jóvenes	Adultos
Pensión completa	18,70	23,90	30,60
Comida	6,70	7,20	8,75
Cena	6,70	7,20	8,75
Alojamiento y desayuno	10,90	14,05	18,70
Alquiler de sábanas	3,00	3,00	3,00

Servicios especiales: Utilización de instalaciones fuera del horario convenido.

Facturación según coste: Facturación mínima 2 euros por persona.

2. Clases de Precio Público.

1.- Existen tres clases de Precio Público:

- Concertada jóvenes
- Normal jóvenes
- Normal adultos.

2.- Aplicación del Precio Público:

- Concertada jóvenes:

A toda persona que cumpla los siguientes requisitos y que vaya a realizar una actividad propia:

a) Menores de 30 años, pertenecientes a asociaciones legalmente constituidas.

b) Grupos de monitores de asociaciones juveniles.

c) Alumnado de centros de enseñanza.

d) Los grupos juveniles, entendiéndose por tales aquellos mayoritariamente compuesto de personas menores de 30 años.

- Normal jóvenes:

A toda persona que cumpla los requisitos del punto anterior y que sea una actividad promovida por una Institución Pública, Municipal, Foral, Comunidad Autónoma u otras, con excepción del Instituto Foral de la Juventud quien regulará específicamente los precios para sus propias actividades.

Empresas privadas.

Alberguistas de la REAJ hasta 30 años.

- Normal adultos:

Al resto de personas usuarias se les aplicará el Precio Público Normal Adultos.

3.- Los y las menores de 4 años abonarán el 30 por ciento del precio correspondiente.

4.- Los y las menores de 12 meses de edad, estarán exentos de pago.